

Jose Luis ALVAREZ «Txillardegi» | Hizkuntzalaria

## «Oraintxe hartu dugu lehen aldiz herri kontzientzia»

Mende honen bigarren erdian Euskal Herriakn izan dituen bidegurutzetaz gertatzen ari garen, ETaren sorreran, euskara batuaren auzian, literaturaren berrikuntzan eta beste hainbestetan, eta 70 urte aurki betekotz dituenen baztertzaren hasia ote dagoen sentipena du, erabakirik garrantzitsuenak bera gabe hartzen ote diren errezeloa. Hori duintasunez darama, baina eraman ezin duena «argazkietarako bakarrik deitzea» da.

Oraindik haurra zela sumatu zituen hiltzen ari zen hizkuntza baten aldeko ixuria eta grina eta debekaturik zegoen aberri baten aldeko nostalgia eta bi maitasun handi horiek markatu dute geroztik bere ibilbide luzea. Bi maitasun horiek samini ekarri diote, saminetik gehiago izan baitute Jose Luis Alvarez Enparantza "Txillardegik" jasan zuen erbestealdiko luzeak eta sufritu dituen erasoak. Mende honetako bigarren erdian markatu duen pertsonetako bat da, bere onerako edo txarrerako lehen planon ibiltzen ohiutako gizona, eta asaldatu egiten du berriaz baztertzaren hasiak ote diren pentsetak. Literargi, idazle, hizkuntzalaria, ekinzaile, pentsalari izan da eta oraingorik ere eta 70 urte bete-tzera badao ere, apenas adinaren ajerik somatzen zaion buruaren abiaduran behintzat.

**Elkarrizketa eskatzeko deitu dizugularik, uzkur samar somatu zaitugu.**

Nik ez dut balio itxurak egiten ibiltzeko. Inoiz ez dut balio izan eta orain gutxiago. Askotan argakia egiteko bakarrik deitzen didate. Badakit molestatu baizik egiten ez duen aitona bat naizela. Hori onarturik daukat, baina sutan jartzen nau argazkietarako deitzen didatenean. Baina, tira! Hori ez da zuen arazoa. Ez nuke inoiz okerrik eman nahi. Egunkari berriakoa laguntza eskatu zidatelarik, ez nuen dudu izpirik egin eta berriro ere behar duzun gutzietan laguntzeko prest nagoela esan nahi dizuet.

**Lizarra-Garaziko Hitzarmenak zer ondorio izan ditzake kulturaren arloan?**

Hitzarmenaren muina Euskal Herriak beste inoren inposaketarik gabe baduela bere geroa erabakitzeko eskubidea aldarrikatzea da, baita kulturaren eta hizkuntzaren eremuan ere. Nafarroan bertan ere gero eta aukera gehiago ikusten da euskara ofizialtzeko eta hori berria da. Gaur ari naiz hain zuzen "Principe de Viana" azken zenbakian Ricardo Ciervideren lan bat irakurtzen, non gogoratzen duen herrialde horrek bi hizkuntza ofizial izan dituela bere historian, gaztelania alde batetik. Gaztelan bertan baino lehenago ofizial egin zutena, eta *scripta occitana* beste-tik, baina euskara inoiz ez.

Historian lehen aldiz hasi da herri hau bere kontzientzia hartzen eta Lizarra-Garaziko Hitzarmena horren ondorioz jaio da, herri kontzientzia horrek bultzatu baitu alderdi politikoak puntu nagusi batzuetan ados jartzera.

Ni oso baikor nago. Kultura eta hizkuntzaren arloan ere ez gara gauden bezala inoiz egon. Nik badakit nolakoa zen orain 30 urteko abertzaletasuna. Zerbait aldiz eztabaidatu nuen Don Javier Landaburuarekin. «Dimelo en serio, Txillardegi. ¿Tu no cogieras ahora mismo una Euskadi libre y sin enjara? Dimelo en serio», esanez bukatzen zituen eztabaidak. Euskara ohi-tura zaharren pareko zerbait zen hantzat.

Gauzak asko aldatu dira. ETAK, esate baterako, euskaraz bakarrik zabaldu zuen atzoko komunikatua. Horrek zerbait esan nahi du.

**Zertan ari zara azken aldi honetan? Zer duzu eskuarten?**

Nobela historiko bat bukatzen ari naiz, bigarren karlistadari buruzkoa. Karlismoari buruzko historio-

grafia ofizialak ez du esplikatzen fenomenoak, ez dute agertzen karlismoa zergatik errotzen duen Euskal Herrian, zergatik hementen bakarrik aliatzen diren armatan bi aldiz oso denbora gutxian. Nire ustez, karlismoa mugimendu nazional bezala bakarrik esplika daiteke. Mugimendu nazional baten formulazio katastrofikoak izango da, eskuindarra, karka eta nahi duzun guztia, baina mugimendu nazionala. Gainera, aitzertzekoak izango litzateke garaiko beste mugimendu nazionalak ere. Italiakoa, esate baterako, nolakoa izan zen. Karlismoa praktikan estatu bat eraikitzea iritsi zen hementen, bere armada, administrazioa eta monetarekin. Carlos VII.ak, esate baterako, Oñatiko Unibertsitatean ikasurteak inauguratzen zituen. Egia da unibertsitate hori Ipiritu Santuaren Unibertsitatea deitzen ziotela, baina garai berean atzeko izenak erabiltzen zituzten Lovainako unibertsitatean, adibidez bat bakarrik aipatzearen. Estatu paralelo bat eraikitzeko ahalmen hori esplikatzeko ez dago foru gailera eta autogobernu nahia aitzertzea beste biderik. Karlismoak jarrera preabertzeak erakutsi zituen. Carlos VII. ren konfiantzazko gizona izan zen aita Goierriena jesuita bizkaitarrak esan zuen: «Esio es una guerra de invasión». Eta Iparragirrengan ere somatzen da horrelako zerbait, nahiz eta «Hara España!» kantatzen duen.

**Zein da nobela berriari jarri diozun izenburua?**

Donostiako Parte Zaharrean, Putzu kalean jaiotakoa da nobelako protagonista eta izenburua 'Putzu' jarri diot. Nire protagonistak, Arribarrena, karlista abertzaletu bat da eta bigarren gerra dela eta Baionan errefuxiatua. Karlismoaren gune nagusiak eta giroa ezagutarazteko balioko dit protagonistaren ibilbideak. Gerra gailtzean, esan bezala, Baionara pasatuko da eta nolabait abertzale jarrera hartuko duela esan daiteke.

**Dokumentazio lan handia eskatu al dizu nobelak?**

Karlismoa aitzertzea beti izan dut gogoko eta material izugarria dut pilaturik gai horretaz. Aitzertuak ditudan pertsonaia eta gai asko nobelatutik kanpo geratuko zaizkit eta posible ikusten dut gai honi buruzko hitzaldiak ematea ere. Oso interesgarriak dira karlismoak abertzaletasun berriarekin dituen zubiak eta loturak. Oso garrantzizkoak da, adibidez, Olazabal finantzariaren figura. Honen alaba Julio Urtxiborekin ezkondu zen. Julio bera ere karlista eta tradizionalista zen, baina euskaltzale ere bai eta oso azkar egongo diren lehen abertzaleekiko loturak.

**Noiztik ari zara nobela honekin lanean?**

Orain arte botzak hasi nintzen nobelarekin, baina azatik ari naiz modu intentsibean. Lazko urtea oso gogorra izan zen niretzat. Mahaia Nazionala kartzelara sartzeak, Joseba berran ikusteak areagotu egin zuen nire ondoeza eta lehorte horren kontra zerbait egin behar nuela eta hasi nintzen gogor lanean. Udaberrirako bukatzeko asmatan ari naiz. Hogeita bederati kapitulu-tatik hogeita lau eginak ditut eta Elkarlanean argitaletxea zain daukat lana kaleratzeko. \*

